Mikrokreditu programak kudeatzeko lankidetza hitzarmena, Hernaniko Udalaren eta Euskadiko Finantza Etikoak Elkartearen artekoa.

PARTE HARTZAILEAK

Alde batetik,

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, Hernaniko Udaleko alkate-lehendakaria den aldetik, HERNANIKO UDALAren izenean (IFK: P-2004300F) eta ordezkari gisa, Toki Jaurpideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean 21. artikuluak xedatutakoaren arabera.

Eta bestetik, Santiago Membibre Peral, adinez nagusia, helbidea Bilboko Harrobi Plazako 4 zenbakiko 2. solairuan duena, eta 30643818K zenbakiko NANa duena, **Euskadiko Finantza Etikoak Elkartea**ren izenean **(aurrerantzean Finantza Etikoak Elkartea;** IFK G-95461786 eta helbidea Bilboko Harrobi Plazako 4 zenbakiko 2. solairuan duena). Eskuordetza ahalmenaren bidez akreditatzen da.

Biek, beren izenean eta eskubidean, goian adierazitako erakundeen ordezkari gisa, eta kontratatzeko ahalmena eta legitimazioa elkarri aitortzen diotelarik, **GIZARTE BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEI LAGUNTZA FINANTZARIOA EMATEKO LANKIDETZA HITZARMEN** hau sinatu dute.

1. HERNANIKO UDALEKO ZERBITZU SOZIALAK erakundeak, Hernaniko Udalaren menpeko erakunde autonomoa izanik, "Gizarte laguntza programak bultzatzea, garatzea eta gauzatzea" du helburu. Udalaren oinarrizko gizarte-zerbitzuak erakunde autonomoaren baitan kokatzen dira eta zerbitzu horiek dira, hain zuzen ere, gizarte programak aurrera eramaten dituztenak. Hitzarmen honi dagokion balorazio teknikoa –balorazio sozialak-, erakunde autonomoaren zerbitzu teknikoek bideratuko dute.
2. Hernaniko Udalak, honako jarduketa ildo hauetan lan egiten du bere laguntza-politikari dagokionez:
   - Gizarteratze prozesuak laguntzeko ekimenak sustatu, bultzatu eta horietan parte hartzea, emigraziotik eta beste prozesu batzuetatik etorri eta baztertze-arrisku handia duten taldeei arreta berezia eskainiz.
   - Ikerketa-, hausnarketa-, bitartekaritza- eta gizarte-esku hartzeko jarduerak sustatu eta garatzea, zailtasunak dituzten taldeak gizarteratzeko prozesuei buruzko sentsibilizazioa areagotzeko.
   - Bizikidetza bidezkoagoa eta gizatiarragoa lortzen laguntzen duten proiektuak finantzatzea eta gauzatzea, zuzenean edo beste erakunde nahiz instituzio batzuen bidez.

3. Finantza Etikoak Elkarteak honako jarduketa ildo hauek ditu helburu:
   - Euskadiko Autonomia Erkidegoan sentsibilizazio lanak planifikatzea eta aurrera eramatea, oro har, finantza etikoen inguruan eta, bereziki, FIARE-banka etikoak garatzen duen banka etikoko ereduaren inguruan.
   - Elkartasun ekonomia arloko beste eragileekiko aliantza estrategikoak ezartzea, FIARE-banka etikoak sustatutako Banka Etikoko Sistema sendotzera bideratutako proiektuak elkarren artean garatzeko.
   - Ekonomia alternatiboa eta solidarioa sostengatuko duten finantza-lanabes alternatiboak sortzea eta garatzea; ekitatea, lana, ingurumen iraunkortasuna, kooperazioa, irabazteko asmorik eza eta inguruarekiko konpromisoan oinarrituta.

ARAUBIDE JURIDIKOA

4. Bi erakundeek, hitzarmen honi aplikatu behar zaion araubide juridikoari dagokionez, hurrengo arauen arabera jardutea aurreikusten dute: Diru-Laguntzen Lege Orokorra (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) eta lege horretako araudia garatzeko Errege Dekretuan (887/2006 Errege Dekretua, 2006ko uztailaren 21ekoa) ezarritakoa izango da.

   Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 12. artikuluak xedatzen du erakunde laguntzaileen izaera. Hitzarmen honen kudeaketarako Finantza Etikoak Elkarteari erakunde laguntzailearen izaera aitortzen zaio. Erakunde laguntzailea izango da diru-laguntza ematen duen organoaren izenean eta haren kontura, diru-laguntzarekin zerikusia duten ondorio guztietarako, funts publikoak onuradunei eman eta banatzen dizkiena, oinarri arautzaileetan hala ezartzen denean, edo diru-laguntza kudeatzen laguntzen duena, jasotako funtsak aldez aurretik eman eta banatu gabe. Funts horiek ez dira inola ere beren ondarearen osagaitzat hartuko.

   Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 16. Artikuluan eta 16887/2006 erregelamenduaren III. Kapituluko III. Atalean jasotzen ditu lankidetza hitzarmenen baldintzak.

   Finantza Etikoak Elkarteak aitortzen du ez dagokiola 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan erakunde laguntzaile izateko ezarrita dauden debekuetako bat ere.

HITZBAKETAK

5. Helburuei begiratuta, bi erakundeek adierazten dute beren jarduera eta lankidetza aukerak ulertzeko moduan bat datozela:
   - Pobrezia, desberdinkeria eta gizarte bazterketak arrazoi asko dituzte, elkarlotuak egoten direnak, eta ezinezkoa izaten da bati erantzutea besteak alde batera utzita.
   - Gizarte bazterketa arriskuko egoeretan egiten diren esku-hartzeak baliagarriak izan daitezen esku-hartze horiek diziplina anitzekoak izan behar dute, baina erantzun desberdinak bideratuko dituen esku-hartze erreferentzia egonkor bat emanez.
   - Neurrira egindako finantzaketa-lerroak eskuragarri izateko aukerak lagundu egin dezake inklusio prozesuetan, gainerako esku-hartze ildoekin koherenteak diren heinean. Horregatik, esku-hartzetik beretik proposatu behar da dena delako egoerarentzat egokiena den finantzaketa-lerroa.
   - Gizarte sektorean diharduten erakunde asko egoteak efektu biderkatzailea izan behar du inklusio prozesuetan, beti ere arazo zehatzei irtenbidea bilatzerakoan elkarrekin lan eginez, arazoei erantzuna bilatzea erakundeen beren barne helburuen gainetik jarriz.
   - Inklusio prozesuan dauden pertsonen duintasunak eskatzen du finantzaketarako duten aukera nahikoa profesionala izatea, baina pertsona bere prozesutik ateratzen ez duena, mailegua prozesuaren muina izatea saihestuz, gainerako lerroetarako sostengu bat besterik ez baita, lerro horiek direlako luzera begira garrantzitsuagoak.
6. Aurreko horretan oinarrituta, bi erakundeek adostu dute gizarte edota finantza bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako finantza esku-hartze bateratu bat egitea, eskema honetan oinarrituta:

- 2015eko abenduaren 18an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako ohiko bileran, Hernaniko Udala eta FIARE Proiektua EAEn Babesteko Elkartearen (gaur egungo Euskadiko Finantza Etikoak Elkartea) arteko lankidetza hitzarmena onartu zuen, "behar sozialeko egoeretarako mikrokredituen diru-funtsa" eratzeko xedearekin. Hitzarmena 2016ko otsailaren 18an sinatu zen lau urteko iraupenarekin (2016-2019), eta proiektua martxan jarri ahala, hainbat eskaera jaso eta gauzatzen joan dira.

  Hitzarmena indarrean egon den epe honetan, bi aldeek balorazio positiboa egin dute, eta hasierako hitzarmenean jasotako helburuak betetzeko tresna baliagarria izan dela ondorioztatzen da. Esfortzu berdinarekin, bi alderdiek hitzarmena berritzea eta finkatzeko ariketa egiten dute, ikasitako gauzak praktikan jartzeko grinarekin, hitzarmenak izandako indarraldian identifikatutako beharretara egokitu eta programan aurreikusita dauden prozedura guztiak hobeto zehaztuz.

- Hitzarmen honen helburua, gizarte izaerako ekimenetarako mikrokredituen udal programaren iraupena bermatzea da. Hernaniko Udalak diru-funts bat esleitzen dio mikrokredituen programari; Finantza Etikoak Elkarteak, erakunde kolaboratzailea izaera duen heinean, horren kudeaketa lanak egingo dituelarik. Azken horiek, betiere, Hernaniko Udalaren agindupean eta hitzarmen honek ezarritako baldintzen arabera bete beharko dira. Hernaniko Udalak funts hori Finantza Etikoak Elkartearen esku jarriko du finantza edota gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonei emateko izango diren mikrokreditu gisa erabil ditzan. Aipatutako diru-funtsaren oinarriak eta izaera hitzarmen honen I. eranskinaren lehenengo atalean zehazten dira.
- Hernaniko udalak martxan jartzen duen programa honetan parte-hartu ahal izateko, biztanleek hitzarmen honen I. eranskinaren lehenengo atalean jasotzen diren eskera-orri eta dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, testu berean zehazten diren Udaleko organoetan. Eskaera horiek Finantza Etikoak Elkarteak kudeatuko ditu, Hernaniko udaleko gizarte zerbitzuekin batera.
- Aipatutako diru-funtsa 2016. urtean jarri zen martxan eta hurrengo hauek dira 2020. urteko abenduaren 31ra arte jasotzen diren datuak:
  - Hernaniko udalaren ekarpena: 90.000 €.
  - Onartutako mikrokreditu kontratuak: 33.
  - Indarrean dauden mikrokreditu kontratuak: 26.
  - 2016. urtetik sinatutako mikrokredituei esleitutako diru kopurua: 83.743,50 €.
  - Mikrokreditu funtsaren saldo erabilgarria (2020/12/31): 42.606,50 €.
- Sinatzen den hitzarmen berri honen epealdian, Hernaniko Udalak testu honen bidez zehazten den diru-laguntza programa diru-ekarpen baten bidez hornitzeko konpromezua hartzen du. Ekarpen hau, orain arte programari esleitu zaion kopurua eta eskaera berriak kontuan hartuz sortzen diren diru-beharren araberakoa izango da. Horretarako, Hernaniko Udalak dagokion beharrezko aurrekontu kontsignazioa bermatuko du, Finantza Etikoak Elkartearen aldeko ekarpen izendun gisa, gastu aurrekontuaren laugarren kapituluan.
- Hitzarmen honetan espresuki jaso ez diren gauzetarako Hitzarmen honen Eranskinean "Mikrokredituak emateko oinarriak eta kudeatzeko prozedura" izendatutako lehenengo atalean xedatutakoa ezarriko da.

7. Balorazio batzorde bat eratuko da (aurrerantzean, batzordea). Batzordea Hernaniko Udaleko kide, elkarte eta toki erakundeek osatuko dute, eta jasotako eskabidearentzat egokiena den

finantza esku-hartzea proposatzea izango du egiteko. Horrez gain, honako betebehar hauek izango ditu: jasotako txostenak eta eskaerak aztertu eta banakako maileguak proposatuko dizkio Finantza Etikoak Elkarteari; mailegatutako kopuruaren itzulketa egiteko eskema proposatu eta onartuko du; kasuaren arabera, heziketa ekintzak aurrera eramatea adostu ahal izango du...

8. Batzordeak eta Finantza Etikoak Elkarteak hitzarmenaren eta maileguen jarraipena egingo dute. Horretarako, elkarren arteko komunikaziorako bideak jarriko dira, eta behar beste bilera egingo dituzte, honetarako:

   - Mailegu bakoitzaren ordainketaren egoeraren jarraipena egiteko eta kasu berezietan (adibidez ordaintzen ez den kasuetan, mikrokredituaren eskatzailea edo bestelako kasu berezietan) zer egin erabakitzeko, bereziki hitzarmenaren esparru orokorrean jasota ez datozen kontuei dagokienez.
   - Mailegua ez ordaintzea gertatuz gero "mikrokredituen programaren kudeaketa"rako protokoloan jasotako pausuak jarraituko dira **(hitzarmen honen I. eranskinaren lehenengo atalean)**. Batzordeak zehaztuko du kasu horietan egin beharreko proposamena.

9. Programa honek eragiten dituen kudeaketa gastuetarako, urtean emandako mikrokredituen guztizko kopuruaren %5a gehi indarrean dagoen kredituen saldo biziaren %5 bideratuko da, urteko azken hilabetean faktura bidez likidatuko dena. Kopuru hori ez da funtsetik deskontatzen den kopuru bat, udaletik egiten den ordainketa baizik.

10. Erakundearen betebeharrak:

    - Hitzarmena izenpetu aurretik eta hitzarmenaren indarraldi osoan zehar zerga betebeharrak (estatukoak, autonomia erkidegokoak eta tokikoak), eta gizarte segurantzarekikoak erregelamenduz ezarrita dagoen moduan eguneratuta daudela ziurtatzea. Gainera, espedientea prestatzerakoan eskatzen zaion dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.
    - Jasotako kopuruak itzultzea, 38/2003 Legearen 37. artikuluan jasota datozen itzulketa-inguruabarrak gertatuz gero.
    - Jasotako funtsak behar bezala justifikatzea, arau hauei jarraituz: Finantza Etikoak Elkarteak urte bakoitzeko uztailaren 31 baino lehen txosten bat aurkeztuko du, eta urtarrila bukaeran justifikazio bat, aurreko urteko abenduaren 31ra bitarte egindakoari buruz. Justifikazioan funtsaren mugimenduen berri emango du, eta hitzarmen honen kontura egindako gastuena. Bestalde, gastuak justifikatzen dituzten agiriez gain, egindako ekintzen txostena ere aurkeztuko du, hitzarmen honen helburuarekin bat etorri beharko dutenak.

11. Izaera pertsonaleko datuen tratamendua.

    - Behean sinatzen duten bi aldeen artean ezarritako lankidetzarako konpromiso honek bere gain hartuko ditu, oro har, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko araudiak jasotzen dituen betebeharrak, eta EAEren eremuan indarrean dagoen legedia bereziki. Aurretik adierazitakoa kontuan izanik, eragileek, zerbitzuek eta programek bigarren akordioan lankidetzarako definitutako edozein jarduketa burutuz gero, gai hauetan zehaztutako printzipioak bete beharko dituzte, batez ere datuen kalitate, proportzionaltasun, baimen, informazio eta konfidentzialtasunaren inguruko printzipioak, baita araudietan xedatutako derrigorrezko segurtasun neurriak ere.

      Horretarako, hitzartutako lankidetzaren inguruko zereginak garatzeko inplementatu beharreko baliabideak ematea errazteko eta konpromisoa bereganatzeko, bi aldeek baliabideak sortzeko eta mantentzeko dituzten betebeharrak protokolo honetan sartuko dira —baliabide teknikoak zein antolaketari dagozkionak—, era horretan informazioaren tratamendu segurua bermatzeko.

Lankidetzarako protokolo honen ondorioz izaera pertsonaleko datuei emango zaien tratamendua kasu bakoitzean burutzen den lankidetzaren araberakoa izango da. Hortaz, ulertzen badugu lankidetza dela:

- Hernaniko Udalaren eta Finantza Etikoak Elkartearen artean informazio esanguratsua trukatzea: 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, datuak komunikatzearen inguruan xedatutako arauak aplikatu beharko dira.

  Informazioa trukatzeko garaian zorroztasun berezia eskatuko da "bereziki babestu beharrekoak " diren izaera pertsonaleko datuak ematen direnean, zalantzarik gabe lankidetza zeregin horiek burutzen diren bitartean datu horiek erabiliko baitira. Horiek horrela, datu tipologia horretan, *a priori* interesatuak adostasuna adierazi edo baimena eman beharko du datu horiek lagatzaileak zein lagapen-hartzaileak erabil eta trata ditzaten. Bi aldeek dagokien erantzukizuna bere gain hartuko dute derrigorrezko segurtasun neurriak hartu eta betetzearen inguruan; izan ere, araudiak onartutako oinarrizko eskubide baten testuinguruan dihardute, hain zuzen ere Konstituzioak onartutako autodeterminazio informatiboaren eskubidearen testuinguruan.

- Estatistika txostenak egitea: informazioari ematen zaion tratamendua eta trukatzen den informazioa, ahal dela era disoziatuan egingo da; izan ere, helburu honetarako ez da nahitaezkoa interesatuen datu pertsonalen berri izatea, nahikoa da irizpide kuantitatibo eta kualitatiboei jarraiki lagin agregatua izatea. Hori erabat ezinezkoa balitz edo datuak bereizteko prozesuaren kosteak direla eta aipatu txosten horiek egitea gauzatu ezina balitz, izaera pertsonaleko datuak emateko erabiliko diren baliabide edo mekanismoek bermatu egin beharko dute informazioa ulergarria ez izatea eta ez dela aukerarik izango hirugarren batzuek manipulatzeko. Edozein modutan, informazioaren segurtasuna bermatu beharko da.

  Lagatzaileak nahiz lagapen-hartzaileak izaera pertsonaleko datuak helburu estatistikoetarako trukatzen dituztenean helburu horietarako bakarrik erabiliko dituzte. Bestelako erabilerarik egitea datu horien lagapen ez-zilegia izango litzateke, legez kontrakoa, beraz, eta, ondorioz, arau haustea egin duen aldeari dagokion erantzukizuna eska lekioke.

  Halaber, datuak babesteko gaietan aplikatu beharreko araudia alde batera utzita, protokolo hau sinatzen duten aldeek gai hauetan aplikatu beharrekoak diren bestelako araudi sektorialak ere gogoan izango dituzte. Horiek horrela, esate baterako, estatistika publikoaren gaietan indarrean dagoen legedi espezifikoak xedatutakoa bete beharko da.

- Hernaniko Udaleko eta Finantza Etikoak Elkarteko arduradunen arteko informazio trukaketa, ingurune partekatuaren diagnostikoa burutzeko helburuarekin: kontuan hartu beharko da diagnostiko partekatua egiteko zereginak duten pertsonek izaera pertsonaleko datuak konfidentzialtasunez gordetzeko betebeharra dutela, une horretan eta handik aurrera ere bai.

  Horri dagokionez, zehaztu egingo da zein kasutan gorde beharko den informazio hori, zein epetan eta horretarako prestatuko diren era eta lekuak ere bai.

  Era berean, puntu honetan gogoan hartuko da bi aldeek konpromisoa hartzen dutela datuak hartu eta tratatzerakoan helburutasun eta funtzionalitate printzipioak gordetzeko.

12. **Iraupena**. Hitzarmenaren iraupena, haren izaera kontuan izanda, lau urtekoa izango da 2021 urtarrialren 1etik hasita (2024 abenduak 31 bitarte), eta beste bi urtez luzatu ahal izango da (2026 abenduak 31 bitarte).

Nolanahi ere, bi aldeetako edozeinek hitzarmena gutxienez 3 hilabete lehenago salatzeko aukera izango du. Hala eginez gero, diru-funtsean erabilgarri dagoen diru kopurua Hernaniko Udalari itzuliko zaio.

Halaber, Finantza Etikoen Elkarteak kobratzear dauden kopuruen gaineko kudeaketa egiten jarraituko beharko du, hitzarmena amaitzen den unean indarrean dauden mikrokredituen iraupen aldia amaitu arte, edota mikrokredituetan emandako diru-kopuruak guztiz itzuli arte. Kopuru osoa kobratu ez arren, Elkarteak itzultzen diren kopuruak bueltatu beharko dizkio Udalari.

13. Sinatzen den hitzarmen honek aurrekoak indargabetzen ditu.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmenean parte hartzen duten bi aldeek kontratu honen bina ale sinatu dituzte, helburu bakar batez, Hernanin, 2021ko uztailaren 2an.

Izptua.	Izptua.
Xabier Lertxundi Asteasuinzarra	Santiago Membibre Pera